

JUAN CARLOS BECERRIL -Eskubaloit taldeko lehendakaria-

## “Eskubaloirik gabe geratuko da Hernani, zuzendaritza berririk sartzen ez bada”

■ Hernaniko Eskubaloit Direktibak kargua uztea erabaki du, bost urte eta gero ■ Arrazoa: “erreleboa ez duela inork hartu nahi” ■ Talde bakarrarekin 3 urte daramazki Hernanik ■ Datorren urtean, talde gabe geratu daiteke.

ESKUBALOIAK izugarriko indarra izan du Hernanin, betitik. Batzuk gogoratzen dute Txantxilan 11 lagunekin jokatzen zen garaia. 60 garren hamarkadan Atsegindegin jokatzen zen 7 jokalarirekin. 1985-90 urteetan 7 ekipo izan zituen Hernanik. Emakumeek Europan jokatu zuten Ohorezko Ligan zebiltzan urteetan. Eskubaloit taldeari jende askok eskaini dizkio bere urteak eta horietako bat da Juan Carlos Becerril.

Juan Carlos Becerril hernaniarra da. 42 urte ditu eta 27 eskaini dizkio Eskubaloitari. 15 urterekin sartu zen taldean. 21ekin hasi zen entrenatzaile eta azken 5ak daramazki direktiban. Bera da taldeko lehendakaria.

■ Eskubaloian 15 urterekin hasi zinen, asko aldatu al da ordutik taldeko egoera? Bai. Orduan 7 ekipo ginen, 50 lagunetik gora. Izugarria zen lanerako giroa eta gogoia. Gero pixkanaka galtzen joan da, bai jendea eta bai lanerako gogoia.

■ Emakumezkoak Ohorezko Mailatik jeisteak izan al du eraginik? Ez. Ez dut uste. Ohorezko Maila 1994 inguruan galdu genuen. Gero, urte batzuk ekipoirik gabe pasa genituen baina, mutilenak jarraitu zuen. Bajualdia lehenagotik sumatzen zen. Talde honetan pasa den jende askok jokatu bakarrik egin du. Lanerako prest beti jende gutxi. Horrek galdu



Juan Carlos Becerrilek 27 urte daramazki taldean.

du taldea. Eta beti hemen ari ginenak erre egin gara. Gainera, umeetan ere ez dago taldeirik. Hori da seinale txarra.

“Eskubaloian defentsa-lana izugarri gustatzen zait. Zaila eta sufrtua da baina, ondo egin ezkeru ederra ere bai”

■ Direktibak utzi egingo du. Eskubaloirik gabe geratuko garela esan nahi al du? Erreleborik etortzen ez bada, bai. Guk bost urte daramazki gure. Momentu honetan 3 lagun bakarrik ari gara. Oraindik talde berririk ez da presentatu, eta nik ez dut esperantzarik.

■ Norbait lanerako prest egongo balitz, lantegi zaila edukiko al luke? Ez dut uste. Gu laguntzeko prest egongo ginateke beti. Dirulaguntzak-eta lortuko genituzke, orain artean bezala. Gertatzen dena da, norbait etortzea ez dela nahikoa. Direktiban lagun bat baino gehiago behar dira.

■ Baina, aurtan, denboraldi oso ona egiten ari zarete. Bai eta hori da pena. Oso gustora gaude talde honekin. Larri genbiltzanean sortutako taldea da eta oso ondo erantzun digute. Asko kanpotik etortzen dira, astean 4 aldiz, eta hori beti da esfortzua.

Bestalde, maila nahiko ona daukate. Defentsa harrigarria eta atake oso ordenatua. Ez du inork destakaten baina, denek aportatzen dute zerbait. Talde bat dira; hori da beren arma. Hiru denboraldi egin dituzte eta bi aldiz bigarren gelditu dira eta behin lehenengo. Aurtan igotzerik ez dute lortu baina, ez dira urruti ibili. Kopan ere ondo ari dira. Ea sari bat ekartzen diguten.

Bestalde, maila nahiko ona daukate. Defentsa harrigarria eta atake oso ordenatua. Ez du inork destakaten baina, denek aportatzen dute zerbait. Talde bat dira; hori da beren arma. Hiru denboraldi egin dituzte eta bi aldiz bigarren gelditu dira eta behin lehenengo. Aurtan igotzerik ez dute lortu baina, ez dira urruti ibili. Kopan ere ondo ari dira. Ea sari bat ekartzen diguten.

### Gipuzkoako Kopa

### Hernani-Aloñamendi, kiroldegian, gaur

HERNANIK Gipuzkoako kopako partidua du, gaur, kiroldegian, 11:30etan. Lehenbizikoak dijoaz Kopan, bigarrenarekin enpatatuta. □

### JUBILATU ETXEA

### Corellara eskurtsioa larunbatean

JUBILATU Etxeak Corellara eskurtsioa antolatu du, datorren larunbaterako. Irteera goizeko 8:30etan izango da Atsegindegitik. Eskurtsiora joateko zozketa, astelehenean egingo da, 17:00etan. □

### GAZTE TXOKOA

### 11-17 urteko gazteak Arcachonera dijoaz

GAZTE Txokoak irteera antolatu du Arcachongo Ur-parkera, ekainaren 8rako. Goizean 7:00etan irten eta 21:00etan itzuliko dira. Eskurtsioa 24 euro kostako zaio bakoitzari (autobusa eta sarrera). Maiatzaren 23rako apuntatu behar da. □

### ■ GIMNASIA

### Jaione Tejedor Leioan

GIMNASIA Erritmikoan banakako Euskadiko txapelketak jokatuko dira gaur Leioan. Jaione Tejedor hernaniarra bertan izango da. Gaur, 16:00etan. □

### ■ ERRUGBIA

### Estatuko Txapelketa

### Hernani-Canoe finala gaur 12:30etan

HERNANIKO Jubenilek Estatu-ko txapelketako finala jokatuko dute, Madrilgo Canoeren aurka. Atzo finalerdian Liceo Frances hartu zuten mendean 12-10. Gaur bigarren urtez jarraian titulua lortzen saiatuko dira, Madrilan. □

### ZINEA BITERIN

### ‘Gosfard Park’ 19:30etan

Gipuzkoarako eskusiban **LAND ROVER** kontzesionario ofiziala.  
EUROLAN 4 x 4 (VOLVO ondoan) - ☎ 943 33 10 06

**Hernani Institutua**  
A. Iturriaga - K. Labaka

Ikastetxea ikusteko, maiatzaren 29an  
arratsaldeko 18:30etan

Sta.Barbara z/g.Tel 943 551188 - K.Labaka 7.Tel 943 551958  
www.hernanibhi.hezitek.net  
e-mail: hernani@hernanibhi.hezitek.net

**ESKAINZA**

**BATXILERGOAK**

- Natur eta Osasun Zientziak
- Humanitate eta Gizarte Zientziak
- Teknologikoa

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak
- Mekanizazioa

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- Informazio eta merkaturatze turistikoa
- Proiektu mekanikoaren garapena
- Kultur eta gizarte animazioa
- Instalazio elektroteknikoak
- Alojamentua

## Auzoetako umeentzako tailerrek uztaila arte jarraituko dute

■ Auzo elkarteak gustora daude tailerrekin ■ Astero 100 ume biltzen dira 6 auzotan.

AUZO Elkarteek balorazio positiboa egin dute umeentzako eskulan tailerrei buruz. Udalak antolatuta, eskulan tailerrak astero egiten dira Hernaniko 6 auzotan eta 100 bat ume biltzen ditu, 5-10 urte bitartekoak. Otsailtik maiatzera egitea zen hasierako plana, proba modura. Gurasoak gustora daude, eta uztaila bitarte jarraitzea erabaki dute. Mila Apeztexea alkateorde eta hezkuntza zinegotziak esan digu datorren urtean ere jarraituko dutela, gurasoek hala eskatzen badute.

Auzo elkarten ustez, helburu nagusiak betetzen dituzte tailerrek. Helburu nagusiak dira: auzoko umeak elkartzea, elkar ezagutzea eta auzoko giroa eta izaera indartzea. Horretarako tailerretan biltzen dira, eta bide batez, eskulanetan ere ikasi egiten dute. Hala ere, parkera ere askotan ateratzen dira giro ona egiten duenetan-eta.



Ume gehienak 5-10 urte bitartekoak dira.

**Auzo batzuetan ume gehiago** Auzo batzuek erantzun hobea eman diote tailerrei. Latsunbe auzoan 30 ume biltzen dira eta Ereñotzu eta Elizatxon 20 ume inguru. Etxeberri, Antziola eta Zikuñagan 10na. Dena dela, gurasoak gustora daude auzo guztietan. Adibidez, Etxeberriko auzo elkartearen

ustez "auzoko bizitza nabarmen haunditzen da umeak bildutakoan, bestela elkartuko ez liritekeen umeak dabilta elkarrekin".

Udalak berak ere balorazio positiboa egin du tailerrek izan duten harreraz "espero genuen kopuruak izan dira" zioen Mila Apeztexea. □

### PELOTA

Herri Artekoa

#### Hernani aurrera

HERNANI final laurdenetan da, ostiralean Andoain gaindituta. Joanekoan hiru partidua irabazi zituen Hernanik eta ostiralean berriz nagusitu zen, 1-2. Final laurdenetan Lizartzen aurka jokatu beharko da, seguruenik. □

### FUTBOLA

Emakumezkoen Kopa

#### Finalerdirik gabe

HERNANI kopako finalerdietatik kanpora dago gol bategatik. Añorgarekin enpate gelditu da. Biek 4 irabazi, eta Ina berdindu eta galdu dituzte; baina, Añorgak 13 gol alde eta 3 kontra ditu (+10). Hernanik 16 alde eta 7 kontra (+9). □

### SAN MARKOS

#### Kanpaina berria

SAN Markos Mankomunitateak birziklatzeko kanpaina egingo du, maiatzetik uztaileira. Bi helburu: 1) gehiago birziklatzea eta 2) jendeari erakustea kontainer bakoitzean zer bota behar duen eta zer ez. Kanpaina 300 lagunengana iritsiko da. □

### HITZ BITAN



Fraille eta Rebollo zinegotziak, Kubara dijoazen kamioien aurrean.

#### ✓ HERNANI-KUBA

**Udalak 3 kamioi donatu dizkio Kubari.** Udaleko 3 kamioi Kubara bidean dira, Habanako probintzian zabor biltzeko. Hernanin kontainerak aldatu ditu Udalak eta Makinaria ere bai. *Amigos de Cuba* elkarteak eskatu zion Udalari lehengo kamioiak Kubara bidaltzeko, eta Udalak onartu. Dirudienez zailtasun handiak ditu Kubak horrelako kamioiak lortzeko.

#### ✓ GALDUTAKOAK

#### Mendi bizikleta azaldu da Kanposantu parean.

Udaltzaingoan mendi bizikleta berri xamarra dago. Kanposantu parean azaldu zen eta udaltzaingoek daukate nagusia agertu zai. Bizikletaz gain, galdutako telefono mobil asko omen dago. □

### ESKERTZA

#### Rosario Zabaleta Ezeiza

Maiatzak 16an hil zen 76 urte zituela

Senitartekook eskerrak eman nahi dizkizuegu, modu batera edo bestera egun hauetan gurekin egon zeratenoi eta hiletara etorri zineten guztoi.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO.

Hernanin 2002ko maiatzaren 19an.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Aizpuru  
Latxunbe Berri 11  
☎ 943 336077
- ▶ Gauez: Aizpuru  
Latxunbe Berri 11  
☎ 943 336077

### IRAGARKI MERKEAK

Kamarera euskalduna behar dugu. Interesatuak deitu: 943 55 00 97

### AMEGAR, C.B.

#### ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK  
HORMA ARMARIOAK  
Neurrira egiten ditugu.  
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK - TB -  
BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK  
Eskeintza: FAGOR 1/2 Karga  
ONTZIGARBIGAILUA 400 euro.

Txirrita kalea 15  
Tel 943 551125 - Faxe 943 551603  
HERNANI (Gipuzkoa)

### IGELTSERITZA LANAK

#### Etxeberria anaiak



Elizatxo auzoa 24 - 1 ezk.  
Tel.: 943 331 026  
Mobila: 629 119 162  
20.120 HERNANI



ZAPA KALEA 8, Tel. 943 33 15 06

### ADARRAGA

#### Konfitegia Pasteldegia

Urbietara Etorbidea 7  
☎ 943 55 09 10



HERNANI (Gipuzkoa)



### SANTA BARBARA


PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979  
Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoek aldatzen ditugu

- |                      |                        |
|----------------------|------------------------|
| ▶ Opel Astra Carvan  | NA-AK                  |
| ▶ Peugeot 205        | 5 ate SS-AV            |
| ▶ Citroen AX         | Diesela - 5 ate VI - L |
| ▶ Opel Corsa         | 5 ate SS-AK            |
| ▶ Volkswagen Polo    | 6 ate SS-AJ            |
| ▶ Renault Express    | Diesela SS-AS          |
| ▶ Mercedes Furgoneta | Diesela SS-AH          |
| ▶ Seat Ibiza         | Diesela SS-AJ          |

.....eta hainbat kotxe merke.



Betiko lekuan,  
eguneroko ogirik  
onena banatzen!

ANTZIOLA 3  
Tel. 943 55 17 91

### OKINDEGIA

#### ANTZIOLA

Denda berri bat zabaldu dugu:  
Ogia, pastelak, kafea,  
gozokiak, refrescoak,...

Ordenagailuak,  
jendeak erabiltzeko.

MONTEBIDEO, 3



## INFORMATIKA APLIKAZIOEN GARAPENA

### Goi Mailako Heziketa Zikloa

Windows 2000  
Windows 2000 Server

ORACLE  
Database

ORACLE  
Developer



Macromedia  
Director

Dreamweaver  
UltraDev 4

FlashMX

### AITA LARRAMENDI IKASTOLA ANDOAIN

ZATOZ GUREKIN ETORKIZUNEKO  
BIDE DIGITALA EGITERA!  
IZEN-EMATEA: EKAINAREN 3tik 13ra



### INFORMAZIOA

AITA LARRAMENDI IKASTOLA - Txistoki Pasealekua - 20140 ANDOAIN  
Tel 943.593.525 Fax 943.590.390 E-mail: [andoain@ikastola.net](mailto:andoain@ikastola.net)  
[www.andoainikastola.net](http://www.andoainikastola.net)